



HARITZALDE
naturzaleen elkartea

■ Haurrek ibaia naturala nahi dute

Udaberrian auzoetan eginiko haur festetan (URUMEA BIZI!) umeei eskatu zitzaizen Urumea ibaia marrazteko eta hura irudikatzeko. Adin ezberdinetakoek (1-12) ia 200 marrazki oparitu zizkiguten eta gehienek ibaia biziak betetik margotu zuten, natural itxurarekin, ertzak berdeak eta zuhaitzekin, urak urdinak eta animalitxoekin. Zer ibai mota utziko diegu? Bada aukera eta erronka dugu Urumearen, eta gainontzeko ibai eta erreken egoera aldatzeko, hobetzeko. Umeei argi marraztu digute bidea, orain UR Agentzia, Konfederazioa, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiari dagokie gauzatzea.

Joan den udaberrian, "Ura, ibaiak eta herriak" San Telmon ikusgai zegoen bitartean, Haritzalde Naturzaleen Elkarteak 4 haur-festa burutu zituen Martutene, Loiola, Loiolako Erriberan eta Alde Zaharrean, eta horietan guztietan umeei eskatu genien Urumea ibaia marrazteko. Adin guztietako haurrak gerturatu ziren, guztira 400 bat eta ia 200 marrazki oparitu zizkiguten. Harritu gaitu zein natural eta urdin-berde ikusten duten. Irudikatu dute ur garbia eta biziak betetik, arrainak eta ahateak igerian dabiltzala, ibai-ertzak, naturalak, berdeak eta zuhaitzekin. Zubiak ere agertzen dira, txalupak eta traineruak, arrantzalaren bat..., baina orokorrean armonia islatzen dute. Egungo benetako egoera ordea, beheko eremu zabal batean ez da horrelakoa. Haiek dira etorkizuna eta garbi irudikatu digute bidea, orain ardurarekin jokatzeko gure ardura da.

Gipuzkoan ditugun ekosistemek mendeetan gure presioa jasan dute, asko eraldatuta eta batzuk oso kalteturik suertatu direlarik. Garai batean Europako ibairik kutsatuenak genituela esaten zen. Zorionez egoera hura zeharo aldatu da uraren kalitateari dagokionez, baina ibaien egitura bera, uholde lautadak eta ibai ertzak gero eta artifizializatuago ditugu. Tenore honetan ditugun altxor biziak, bisoia eta muturluzea kasu, galzorian daude. Kilometro askotan ibar-basoa suntsiturik dago eta ibai ertzetan landaredia egotekotan zuhaitz zerrenda estuak osatzen du. Ibaia ur-ibilgua baino zerbait gehiago bada, kanal bat ez da ibaia. Hurrengo urte askotan lan itzela egin beharko dugu errekek, sistema dinamiko eta bizi horiek, berreskuratzen. Legeak hor daude, baina gehiegitan beste interes batzuk gailentzen dira. Umeei beren marrazkiekin ederki esan digute zer nahi duten, ez badiegu jaramonik egiten beraiekin zorretan egongo gara. Hortaz, 189 marrazki helarazi dizkiegu UR Agentziakoei haurren "agindua" aintzat har dezaten. Iraunkortasunean benetan sinisten badugu, ibaiak egoera hobean utziko dizkiegu, ezta?

URUMEA BIZI!

* Harremanetarako:

900 110 111 / 609 420 438
naturzale@haritzalde.org
www.haritzalde.org